



IRAKASLE FUNTZIONARIOEN MAHAI SEKTORIALA (2017/12/20)

AKORDIO BATERAKO PROPOSAMENAK

Lan Eskaintza Publikoak eta behin-behinekotasuna

Hezkuntza Sailak behin-behinekotasuna ahal den guztia jaistearen helburua berea egiten du.

2017-2020 legegintzaldian gutxienez 5.000 lanpostu eskainiko dira LEP bitartez. Horrela, behin-behinekotasuna gutxienez 10 puntutan jaitsiko da, %17ra. Edozein kasutan, LEP desberdinen bitartez ahalik eta lanpostu gehien eskainiko dira, unean uneko araudiaren arabera.

Horretaz aparte, eta behin-behinekotasun estrukturala minimora eramate aldera, kredituen sistema, ordutegi partzialak eta lizentziak Planifikazio Batzordean berraztertzeko proposamena egiten du Hezkuntza Sailak.

Bestalde, LEP erdua berrikusi eta birmoldatzeko prest agertzen da Hezkuntza Saila, legeak ezartzen duen markoaren barruan. Egiteko honi 2017/2018an zehar ekingo zaio Planifikazio Batzordean.

Bitartekoen egonkortasuna

Proposamenaren oinarritzko helburua honakoa da: lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak lanpostu horietan mantendu ahal izatea harik eta postua arauz bete edo funtzionario titularra itzultzen den arte. Horren mesedetan, urtero gauzatzen diren prozesuen (lekualdatzea, LEP...) aldikotasuna berraztertuko da bitartekoen izendapenak ahalik eta luzeenak izan daitezzen.

Hezkuntza Sailak 2017ko ekainaren 23ko Mahai Sektorialean aurkeztu zituen "Bitarteko irakasleen eta Hezkuntza Sailaren ikastetxeen egonkortasuna / finkapena" dokumentua eta lan-proposamena.

Sindikatuaren ekarpenak jaso ondoren (sindikatu batek bakarrik bialdu du balorazio bat), aztertu eta erabakitzeko daude hainbat xehetasun Planifikazio Batzordean. Erabaki horiek gora behera, zera planteatzen da:

- 2018/19an "0 esleipen" bat egingo litzateke (finkapenari uko egiteko aukera emanez) eta
- 2019/20an sistema berria abian jarri.

Ordezkapenak

Gaur egun indarrean dugun ordezkapenen erregimena funtsean 2007ko lan-baldintzen akordiotik dator. Hamar urte luze pasa ondoren aldatu gabe (nahiz eta bitartean estatuko oinarritzko araudiak besterik agindu), ikastetxeen funtzionamenduaren eta hezkuntzaren kalitatearen mesedetan proposamen hau aurkezten da.

Ondoko ordezkapenak **lehen egunetik** egingo dira, eta ikasturte honetan bertan aplikatuko da neurria:

- Lehen Hezkuntzakoak
- Aurrikusitako ordezkapenak

DBH eta Batxillerreko ordezkapenak **5. egunetik, 3.era** pasako dira.

LZ/RPT egokitzea

Urtero, estrukturaltzat har daitezkeen lanpostuak LZ/RPTn islatu.

2018an jadanik Bigarren Hezkuntzako 160 lanpostu azaleratuko dira LZ/RPTn, behin Aurrekontuen Legean jaso ondoren. Lanpostu Zerrenda berria, ohikoa denez, dekretu bidez tramitatuko da.

2019rako gaur egun 198 lanpostu azaleratzea aurrirakusten da Haur eta Lehen Hezkuntzan, prozedura berberari eutsiz.

Irakasle plantilak

Urtero egokitzea proposatzen da, matrikulazio kopuruaren eta sistemaren beharren arabera, ohikoa den bezala.

Tutoretza bikoitzak Lehen Hezkuntzan

Ratioak modu orokor eta indiskriminatuan jaitsi ordez, zuzenago jotzen da beharra duten ikasle-taldeei laguntza gehigarria ematea, eskolak izan behar duen kalitateko heziketa helburu. Proposatzen den bide honen bitartez, irakasle gehigarria esleituz, ratioa egokitzen zaie *de facto* behar handiagoak dituzten talde horiei.

Hori dela-eta, Lehen Hezkuntzan tutoretza bikoitzak ezartzea proposatzen da bi baldintza betetzen dituzten ikasle-taldeetan:

- ratioa maximoa denean (25 ikasle)
- berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak gutxienez 5 direnean (ez hezkuntza-premia berezietakoak)

Berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak kontsultoreen eta berritzeguneetako aholkularien balorazio psikopedagogikoaren arabera zehazten dira.

Talde batzuk ikasturte hasieratik izango lukete tutoretza bikoitza, planifikazioak hala aurrirakusten duenean. Ikasturtean zehar, ordea, ikasle berriekin betetzen diren taldeetan ere ezarriko ahalko da tutoretza bikoitza, baldin eta bi baldintzak betetzen badira. Eginkizun hau Eskolatzeko Batzordeen kudeaketapean egongo da.

Bateragarritasuna

Derrigorrez jardunaldi partziala duten irakasleei euren jardunaldia osatzen baimenduko zaie, Bateriaezintasunen legeak ezartzen dituen mugen barruan. Aukera hau eskura egongo da 2018/19 ikasturterako, horretarako bideratuko den Gobernu Kontseiluaren akordioaren bitartez.

Lan-kargak

Lehen Hezkuntzan administrari lanpostuak sortzeko aukera aztertuko da, beti ere ordu-kredituen sistema egokituz. 2018an zehar aztertuko da proposamen honen bideragarritasuna.

Ordu lektiboen murrizketa adinagatik

Gaur egun MUFACEfoak diren funtzionarioek 60 urterekin aurrez erretiratzeko aukera dute, baldintza batzuk betez gero. Ez da horrela gertatzen, ordea, Gizarte Segurantzakoekin. Eta urteak pasa ahala, gero eta gehiago dira Gizarte Segurantzakoak, eta gero eta gutxiago Mufacekoak.

Proposamen honen helburu nagusia 60 urterekin aurrez jubilatzerik ez dutenek euren lan karga arintzeko eta belaunaldi-erreleboa ere sustatzea da.

Zehaztasunez, hauxe da proposatzen dena:

- 60 urtetik gorakoek: 1/3 murrizketa ordu lektiboetan, ordezkapenarekin
- Haur eta Lehen Hezkuntzan, 59 urtetik gorakoek: 2 orduko murrizketa ordu lektiboetan

Ordezkoen zerrendak

Sarritan aipatu denez sindikatuen aldetik, ez dago benetako aukera berdintasunik ordezkapenatarako kandidato izan nahi dutenen artean, zerrenda batzuk irekitzen direlako (kandidato nahikoa ez dagoenean), eta beste batzuk ordea sekula ez direlako irekitzen.

Egoera horri erantzun egokiagoa eman nahian, zera proposatzen da:

- Zerrendak kidegoka irekitzea LEP bat aurrikusita dagoen ikasturtean (esaterako, 2018an Bigarren Hezkuntzako eskaintza egingo bada, Bigarren Hezkuntzako zerrendak irekitzea).
- Irekitzen diren zerrendak irekita mantentzea, jada une honetan egiten ari garen bezala.

Prozesuen aldikotasuna

Hezkuntza Sailak egoki ikusiko luke gaur egun urtero egiten diren prozesu batzuen aldikotasunaren egokitasuna aztertzea (birbaremazioa urtero, lekualdatze lehiaketa urtero...)

Horren arabera, ondoko prozesuen 2-3 urteko aldikotasunaren bideragarritasuna aztertuko du.

- LEPen frekuentzia: 2-3 urtean behin
- Birbaremazioa eta Lekualdatze Lehiaketa: 2 urtean behin

Lizentziak eta baimenak

Araudiaren arabera ahal den kasu guztietan behin-betiko eta bitarteko funtzionarioen ekiparazioa egin lizentzia eta baimenen esparruan aukera eta eskubide berberak izan ditzaten.